

# berria

## XVI. BERRIA TXAPELKETA 2019

### ANTOLAKETA

Gazteleku eta Hernani pilota elkarteek, Petritegi sagardotegiaren laguntzarekin eta Berria egunkariarekin babesarekin, taldekako eskuz binakako pilota txapelketa antolatu dute aurten ere, XVI.n urtez jarraian. Txapelketan 24 elkarte lehiatuko dira, antolakuntzak gonbidatuta, horietatik 8 Gipuzkoakoak dira, 6 Bizkaiakoak, 7 Nafarroakoak, 2 Arabakoak eta Bartzelonako 1.

### SARIAK

Talde txapeldunari: – 6 pilotarientzat txapelak eta trofeoak eta elkartearentzat txapela, trofeoa eta 3.000 euro.

Azpitxapeldunari – 6 pilotarientzat trofeoak eta elkartearentzat trofeoa eta 2.000 euro.

Hirugarren eta laugarren geratzen diren elkarteei – elkartearentzat trofeoa eta 1.000 euro.

5.6.7.eta 8,n geratzen diren elkarteei – 8 pertsonantzat otordua Petritegi Sagardotegian.

### PARTAIDETZA

Elkarte bakoitzak kanporaketa bakoitzean hiru bikote aurkeztuko ditu:

- Lehendabiziko partidari - Kadeteak (infantilak ezin dute jokatu)
- Bigarren partidari - Jubenilak
- Hirugarren partidari -Nagusiak

Elkarteek aurkezten dituzten pilotariek, elkarte horretako lizentzia izan beharko dute.

Kanporaketa bakoitzean pilotari guztiak alda daitezke baina kadeteak ezin dute nagusi mailan jokatu.

## **LEHIAKETA**

1.n kanporaketan ezingo dute herrialde bereko elkarteak, elkarren aurka jokatu.

Kanporaketa sistema erabiliko da, 2 partida irabazten ditun elkarteak sailkatuko da.

Baina, elkarte batek kanporaketa bateko lehendabiziko 2 partidak irabazten baditu, 3 partidatan tanto gehien egin duen elkarteak sailkatuko da. Tanto kopuruan berdinketa badago, 2 partida irabazi duen elkarteak sailkatuko da.

8 aurreko kanporaketa jokatuko dira, 8 final zortziren, 4 final laurden, finalerdiak eta finala.

Kanporaketak igandetan jokatuko dira, Andoain eta Hernaniko frontoietan, kanporaketak aurreratzea onartuko da, ostiral edo larunbatera, Herriarteko edo Gravni txapelketarekin topo egiten badu (azkeneko erabakia antolakuntzak izango du), edo elkarte batek jaialdia erosten badu eta bi taldeek ostiralean edo larunbatean jokatzeko adosten badute.

## **JAIALDIEN SALMENTA**

Gazteleku, Hernani eta Nafarroan Etxeko elkarteak jokatzen dituzten jaialdiak izan ezik, beste guztiak eros daitezke 300 eurotan. Erositako kanporaketak egunez aldatzea utziko dugu, 2 elkarteak ados jartzen badira, hori bai ostirala edo larunbatan jokatu behar da.

## **TXAPELKETAREN DATAK**

Txapelketa Martxoak 31an hasiko da eta ekainaren 22an amaituko Hernanin.

## PARTE HARTUKO ELKARTEAK 2019

### ZERRENDABURUAK

Tolosa  
Oberena  
Ilunpe  
Lapke  
Joko Alai  
Pagazpe  
Erreka  
Olgetan

### GAINERAKOAK

Hernani  
Oiarpe  
Mundarro  
Gazteleku  
Lea Ibarra  
Markina  
Danok Lagunak  
Kurene  
Zugarralde  
Buruzgain  
Paz Ziganda  
San Miguel  
Tafalla-Barañain  
Txukun Lakua  
Zaramaga  
Nafarren Etxea